



Astigarraga Irisgarriagoa

Astigarragako Irisgarritasun Plana

Parte-hartzea eta genero-ikuspegia
txertatuz eguneratzea

Parte-hartze memoria
2024ko urtarrila



Sustatzailea
Astigarrako Udala



Aholkularitza eta
idazketa

Projekta Urbes

PARTE-HARTZE MEMORIA

AURKIBIDEA

PARTE-HARTZE PROZESUA..... 3

HERRITARRAK 1..... 4

UDAL TEKNIKARIAK 1..... 6

UDAL TEKNIKARIAK ETA ORDEZKARI POLITIKOAK 1.....7

ORDEZKARI POLITIKOAK 1..... 9

UDAL TEKNIKARIAK 2..... 11

ORDEZKARI POLITIKOAK 2..... 13

HERRITARRAK 2..... 19

ELKARRIZKETA..... 21

UDAL-ERAIKINEI BURUZKO GALDETEGIA..... 22

GALDETEGIKO EMAITZAK..... 30

GAZTELEKUKO EKINTZA.....47

ORDEZKARI POLITIKOAK 3..... 51

UDAL TEKNIKARIAK 3..... 53

JARDUKETA PROPOSAMENAK..... 54

PARTE-HARTZE PROZESUA

Parte-hartze saio presentzialak

Parte-hartze saio presentzialak hiru taldetan landu dira:

- Herritarrak
- Udal-ordezkarri politikoak
- Udal-teknikariak

Hiru taldeetan lanketa paraleloa egin nahi izan da, bakoitzarekin hiru saio planteatu direlarik:

1. Informazio bilketa
2. Diagnostiko orokorra eta proposamenen lanketa
3. Jarduketaren definizio zehatza eta lehenespena

Galdetegi digitala

Parte-hartze saio presentzialekin batera **galdetegi digitala** jarri da abian. Honen helburua, udalerriko oztopo eta gabezia nagusien mapaketan modu ez-presentzialean parte hartzeko aukera ematea da.




HERRITARRAK 1

H1	HERRITARRAK 1
Helburua	Auzo topaketen bitartez, herritarren ekarpenak bertatik-bertara jasotzea.
Iraupena	Egun osoa
Noiz	Urriak 24
Non	10:30 Joseba Barandiaran plaza 12:00 Norberto Almandoz plaza 15:30 Ergobiako probalekua 17:00 Kontxa Etxeberria plaza
Deitutakoak	Herritarrak
Arduradun teknikoa	Izaro Aizpurua, Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partaidetza saileko teknikaria
Saioaren arduraduna	Argi Yeregi eta Patxi Galarraga, Projekta Urbes

Egun osoan zehar, eta argitaratutako ordu eta lekuetan, herritarren iritziak jaso dira. Gutxi izan dira bere kabuz hurbildu direnak, beraz, proaktiboki jaso dira iritzi ezberdinak. Aipatu diren gaiak:

- Kale Nagusko aldapa. Galtzaur Jubilatuen Egoitza herrigunearen goiko aldera eramatea kaltegarria izan da emakume baten ustez “lehen neure kabuz joaten nintzen, baina aldapa igotzeko gai ez naizenez, autoz eraman behar izaten naute orain”. Gizon batek esan duenez, aldaparen erdian zegoen eserlekua kentzeak beharrezkoa zuen atsedenekua falta izatea eragin du, eta orain oso zaila egiten zaio gora iristea.
- Sagardo Plazatik Erribera ingurura Donostia Hiribidetik joaten da emakume adindu bat, bidea luzeagoa den arren aldapa ekiditen baitu.
- Zoladuren egoera: zenbait lekutan koska handiegieak daude edo baldosa solteak, baina zailtasun handienak etxean bertan dituzte zenbait bizilagunek, ez bait daukate igogailurik.
- Gizon gazte batentzat oztopo handiena hizkuntza da: ez da denbora asko Astigarragara etorri dela eta, euskara ikasten ari den arren, herrian parte-hartzeko zailtasunak ditu oraindik ere.





Ondorio gisa, esan daiteke irisgarritasuna ez dagoela bizilagunen arazo larrienen artean: egunerokotasunean **“ahal den bezala moldatzea”** ohiko esamoldea da.

UDAL TEKNIKARIAK 1

UT1	UDAL TEKNIKARIAK 1
Helburua	Udal teknikaeriei prozesua aurkeztea
Iraupena	60 minutu
Noiz	Urriak 27, 12:00.
Non	Udaletxeko batzar-aretoan
Deitutakoak	Udal teknikariak
Etorritakoak	Amaia Cendoya, Gizarte Zerbitzu saileko teknikaria Irati Marculeta, Udal Arkitekto Teknikoa
Arduradun teknikoa	Izaro Aizpurua, Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partaidetza saileko teknikaria
Saioaren arduraduna	Miren Vives eta Patxi Galarraga, Projekta Urbes
Erabilitako materiala	https://labur.eus/Astigarraga-Irigarritasuna-Aurkezpena01 https://labur.eus/Astigarraga-Eraikin-galdetegia-tek

Aurkezpena

Aurkezpenean irigarritasunaren esparru zabalari buruz hausnartu da, 2017ko Planari buruzko azalpenak eman dira eta datorren prozesu honen helburuei buruz.

Bukatzeko, eta teknikarien eta erabiltzaileen ikuspegia jasotzeko asmoz prestatu den galdetegia erakutsi zitzaion. Galdetegi honetan 2017-ko Planean jaso ziren eraikinen birrazterketa egitea proposatu da, ordutik egin diren birgaitze edo moldaketak jasotzeko asmoarekin. Prozesu berri honi dagokionez, berriz, ondorengo galderak planteatu dira:

- Irigarritasuna: beharrik detektatu al duzue eraikinen erabileran?
- Gizarte inklusioa: beharrik edo aukerarik detektatu al duzue?
- Zaintza lanak: beharrik detektatu al duzue?
- Datozen urteetarako moldaketarik edo birgaitzerik aurreikusi al duzue?
- Aurreikusita egon ez arren, zuen esperientziatik ze aldaketa proposatuko zenituzkete eraikinean?
- Eraikinak kanpo-espazioarekin duen harremana egokia iruditzen al zaizue? Nola hobetuko zenukete?
- Eraikinean ematen den zerbitzua, programazioa edo informazioa irigarriak direla iruditzen al zaizue? Ezer aldatuko zenukete?

Izarok galdetegia teknikarien artean banatuko du eta astebeteko epean betetzeko konpromisoa hartu dute.

Gizarte Zerbitzuetako arduradunaren ekarpenak

Departamentua txiki geratu zaie: administrari bakarra dute, hiru gizarte langilerentzat. Bulego itxiak behar dituzte, intimitatea bermatuko dutenak. Horretaz gain, Udaletxearen kokapena ere ez da egokia adinduentzat, aldapa igotzea suposatzen baitu.

Badirudi aurreikusita dagoela kokapen berri batera joatea, Udalak lokal berri bat eskuratu baitu.

UDAL TEKNIKARIAK ETA ORDEZKARI POLITIKOAK 1

UT-OP1	UDAL TEKNIKARIAK ETA ORDEZKARI POLITIKOAK
Helburua	Azken urteetan irisgarritasunarekin zerikusia duten lanen berri jasotzea
Iraupena	60 minutu
Noiz	Urriak 27, 13:00.
Non	Udaletxeko batzar-aretoan
Deitutakoak	Udal teknikariak eta ordezkari politikoak
Etorritakoak	Irati Marculeta, Udal Arkitekto Teknikoa Izaro Aizpurua, Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partaidetza saileko teknikaria Andoni Gartzia, zinegotzia Naroa del Orden, zinegotzia
Arduradun teknikoak	Izaro Aizpurua, Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partaidetza saileko teknikaria
Saioaren arduraduna	Miren Vives eta Patxi Galarraga, Projekta Urbes
Erabilitako materiala	https://labur.eus/Astigarraga-Irisgarritasuna-Aurkezpena01 https://labur.eus/Astigarraga-Eraikin-galdetegia-tek

Aurkezpena

Aurreko saioan azaldutakoaren laburpen bat egin da, gaia kokatzeko asmoarekin.

Ondoren, prozesuak emango duen emaitzari buruzko hausnarketak egin dira:

- Prozesuaren emaitza datozen laurtekoan lehenetsiko diren lanak zehaztea izango da, parte-hartze zabalaren bitartez definituko direlarik.
- Espazio publikoei eta eraikinei dagokienez, egin beharreko esku-hartzeak definituko dira.
- Paradigma aldaketa bat ematen ari denez irisgarritasunaren esparruan, udalak eman beharreko zerbitzu, informazio eta programazioei buruzko hausnarketa zabaltzea proposatu da: Udal irisgarriaren bidean jartzeko unea dela esan da.
- Sagardo Etxeari lotuta, enpresa espezializatu batek ibilbide irisgarri bat egiteak zenbat zailtasun dituen adierazi zuen, irisgarritasun fisikoaz gain sentSORIALA eta kognitiboa bermatzeko, batipat.

Azken urteotan irisgarritasunaren esparruan egin diren lanak

- Arrobitxuloko igogailua.
- Pilotari kaleko espaloi eta zebrabideen arteko koskak kentzea.
- Emakumeon Plaza eraiki da.
- Donostia Hiribidean egindako lanek irisgarritasunean eragina izan dute.
- Ergobian, autobus geralekura joateko hobekuntzak egin dira espaloian; gainera, eserlekuak jarri dira. Eserlekuak jartzerakoan Ergobiako emakume batzuk egindako ekarpenak kontuan hartu dira.
- Lehen haurreskola zegoen lokalen inguruan, orain Ikastolak erabiltzen dituenak, eserlekuak jarri dira eta are gehiago jarriko dira.
- Kale-Nagusian, Anuskatik kanpo aldera, mutiloiak kendu dira. Baita Arrobitxulon ere.
- Terrazek espazio-publikoaren irisgarritasunean duten eragina ikusita, urtarrikak 1etik aurrera ordenantza berria jarriko da martxan. Horrek izango du eraginik.

- Zamaianetako eremuak berrantolatzea aurreikusi da.
- Erreserbatutako aparkaleku ugari jarri dira herrian zehar.
- Emakumeon Etxea lehen Gazte Lokala zen. Ez da irisgarritasunari dagokion lanik egin.
- Guztira lau (4) komun publiko daude, hiru (3) azken urte hauetan eraikitakoak: Kale Nagusikoa, Foru Enparantzakoa eta Portutxo auzokoa (aurrefabrikatutakoak) eta, azkenik, Urumea Berrikoa, Aiotzategi kaleko beheko solairu batean kokatua. Gainera, Erribera eraikinak ere badu kanpotik irisgarria den beste komun bat eta Ergobian beste bat jartzea aurreikusi da, Aiotzategin bezala, eraikin berri bateko beheko solairuan.
- Kale Nagusian, Anuska auzora iristeko egin diren lanak, parketik malda berri bat eraikiz eta arrapala berriak
- Donostia Hiribideko autobus gergalekuan egindako irisgarritasun sentzoriala hobetu duten ekimenak.
- Mugikortasun Planean onartutako ekintzak martxan jarriko dira piskanaka, adibidez, Arrobitxuloko igogailua eta Erriberaren arteko oinezko lotura hobetzeki dagokiona.
- Auzoetara autobus zerbitzua jarriko da martxan.
- Adinekoentzat Galtzaur elkarteak martxan jarri dira zenbait ekintza eta, honekin batera, baita adinekoentzat taxi zerbitzua ere.

Adostutakoa

Datozen parte-hartze saioei begira, 2017ko Irisgarritasun Planean eta jaso diren asmo eta ekarpenetan oinarritutako “menu” bat prestatu, non esku-hartze bakoitza eta bere gutxi gorabeherako aurrekontua jasoko diren. Parte-hartzaileei jarduketak hautatu eta lehenestea eskatuko zaie, saiora egokitutako dinamika baten bitartez.

ORDEZKARI POLITIKOAK 1

OP1	ORDEZKARI POLITIKOAK
Helburua	Ordezkaritza politikoei prozesua aurkeztea eta azken urteetan irisgarritasunarekin zerikusia duten lanen berri jasotzea
Iraupena	60 minutu
Noiz	Urriak 31, 17:00.
Non	Udaletxeko batzar-aretoa
Deitutakoak	Ordezkaritza politikoa
Etorritakoak	Xabier Urdangarin, alkatea Andoni Gartzia, zinegotzia Naroa del Orden, zinegotzia Estitxu Neira, zinegotzia Aitor Guemes, zinegotzia Ainara Vazquez, zinegotzia Bea Lasagabaster, zinegotzia Patxi Suarez, zinegotzia Iñigo Touzani Velasco, zinegotzia
Arduradun teknikoak	Izaro Aizpurua, Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partaidetza saileko teknikaria
Saioaren arduraduna	Miren Vives eta Patxi Galarraga, Projekta Urbes
Erabilitako materiala	https://labur.eus/Astigarraga-Irisgarritasuna-Aurkezpena01 https://labur.eus/Astigarraga-Eraikin-galdetegia-tek

Aurkezpena

Aurkezpenaren irisgarritasunaren esparru zabalari buruz hausnartu da, 2017ko Planari buruzko azalpenak eman dira eta datorren prozesu honen helburuei buruz. Aurkezpenarekin arazo teknikoak egon direnez, dokumentua e-mailaz helaraziko zaie.

Ondoren, prozesuak emango duen emaitzari buruzko hausnarketak egin dira:

- Prozesuaren emaitza datozen laurtekoan lehenetsiko diren lanak zehaztea izango da, parte-hartze zabalaren bitartez definituko direlarik.
- Espazio publikoei eta eraikinei dagokienez, egin beharreko esku-hartzeak definituko dira.
- Paradigma aldaketa bat ematen ari denez irisgarritasunaren esparruan, udalak eman beharreko zerbitzu, informazio eta programazioei buruzko hausnarketa zabaltzea proposatu da: Udal irisgarriaren bidean jartzeko unea dela esan da.

Elkarriketa (zeintzuk dira gai garrantzitsuenak)

- Auzoetarako autobusa: "taxi a demanda"-k ez du funtzionatzen. Erabiltzaileek, intimitate kontuengatik edo, nahiago dituzte beste alternatiba batzuk. Gai hau ez da arazo publiko gisa ulertzen, landa-eremuan bizi direnen arazo pribatu gisa baizik.
- Egoitzaren birkokapena erabiltzaile batzuentzat desegokia da.
- Autobus zerbitzua: lehen, zenbait linea herri barrutik pasatzen ziren (Martutenera doana adibidez).

Orain Donostia hiribidetik doaz guztiak eta honek asko urundu du geralekua. Kexa hau ez da soilik adinekoena, neska gazte batzuen ere bada. Halere, ez da udal-eskumena.

- Haurrek pasa beharreko zebrabideek eragindako arriskua: adibidez, Erribera-Arrobitxulo ibilbidean.
- Kantxetara poligonoa zeharkatuz joaten dira gazte batzuk, espaloitik beharrean galtzadatik. Bide laburrena hori da, baina luzeagoa ere ez da askoz seguruagoa.
- Jolas-parke guztiak berdinak dira: kontuan hartu beharko litzateke haur guztiek ez dituztela gaitasun berdinak. Adibidez, mugikortasun oso urria duen haur batena... Nola egin jolas-parkeak inklusiboak? Guztiek izan behar al dituzte guztientzat jolasak ala ez? Gai hau garrantzitsu jaso da.
- Kiroldegiko proiektua azaroan jasoko da. irisgarritasun arazo asko konponduko ditu, bere sarbidea Arrobitxuloko igogailuarekin lotuta baitago.
- Txoritokieta eta Hilerriaren kokapena: oso familia gutxi bizi dira bertan. DBH-ko eraikinak lagundu al dezake inguruko irisgarritasuna hobetzen?
- Tren geltoki berria edukitakoan, horren urrun dagoenez, autobus zerbitzua jartzea ezinbestekotzat hartzen da.
- Arazo puntual gisa: Arrobitxuloko grada, farmazia inguruan. Ez du araudia betetzen, baina asko kostatzen ari da hau bete araztea. Erorketaren bat egon omen da bertan, gurpildun aulkiarekin arrapatatik.

UDAL TEKNIKARIAK 2

UT2	UDAL TEKNIKARIAK 2
Helburua	Udal teknikaeriekin batera irisgarritasunari dagozkion jarduketei buruzko diagnostiko partekatua adostea.
Iraupena	90 minutu
Noiz	Azaroak 10, 13:00.
Non	Udaletxeko batzar-aretoan
Deitutakoak	Udal teknikariak
Etorritakoak	Amaia Cendoya, Gizarte Zerbitzu saileko teknikaria Irati Marculeta, Udal Arkitekto Teknikoa Tito Perkaz, Udal arkitektoa Izaro Aizpurua, Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partaidetza saileko teknikaria
Arduradun teknikoak	Izaro Aizpurua, Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partaidetza saileko teknikaria
Saioaren arduraduna	Miren Vives eta Patxi Galarraga, Projekta Urbes
Erabilitako materiala	Aurkezpena: https://labur.eus/Astigarraga-Irisgarritasuna-Aurkezpena02 Jarduketa proposamen taula

Lanketaren aurkezpena

Jarduketa proposamen taula bat banatu zaie teknikariei. Bertan, hiru ataletan bereiztutako esku-hartzeak jaso dira:

Aparteko jarduketak

- Apeztegiko igogailua
- Galtzaur-Txoritokieta igogailua
- Anuskako igogailua
- 27 poligonoko igogailua
- Galtzaur "superetxadia": oinezkoen lehentasuna
- Kiroldegia eraberritzea

Espazio publikoan

- Merkataritza eta ostalaritza irisgarriak (diru-laguntzak, laguntza tekniko/formakuntza eta seinaleztapena)
- Etxebizitza eraikin irisgarriak (diru-laguntza)
- Ibilbide irisgarrien seinaleztapena eta komunikazioa
- Eskaileretako segurtasun eta irisgarritasun mailak hobetu (zoladura, eskubanda, seinaleztapena) (1-2 ud)
- Oinezko pasabideen segurtasun eta irisgarritasun maila hobetu (ukimen-zoladura, koskak, seinaleztapena) (4-5 ud)
- Bidegurutze eta oinezko pasabide goratuak (2-4 ud)
- Komun publiko berria (1 ud)

- Atsedengune txikiak (aterpea, eserlekua, iturria) (1 ud)
- Erreserbatutako aparkalekuak sortu eta seinaleztatu (10 ud)
- Garraio publiko zerbitzuen informazio irisgarria

Eraikinetan

- Udal-eraikinetako sarbide irisgarriak (ateak, seinaleztapena, informazioa...)
- Udal-eraikin bateko komuna egokitu (1 ud)
- Komun-publikoa egokitu (Kale Nagusia 21)
- Txomiñenea Pilotalekuko kantzara sarbide irisgarria

Proposamenei ekarpenak

- Amaiak landa-eremuak duintzeko **auzo-taxi zerbitzua** jartzeko proposamena egin du. Badirudi gaia duela urte batzuk landu zela Gizarte Zerbitzu sailean, eta ekimenarekiko jarrera positiboa adierazi zela balizko erabiltzaileen aldetik. Adibide gisa, Oiartzungo [Xorrola, herri barruko autobus zerbitzua](#) aipatu du.
- Merkataritza eta ostalaritza irisgarriak sustatzeko diru-laguntzak urtero beharrean bi urterokoak planteatu, errazagoa baita obrak bukatu eta zuriak egiteko. Diru-laguntza hauek ekintzailatzarako daudenekin bateragarriak direla ziurtatu.
- Etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeko laguntzak ez dira 2007-2011tik eman.
- Etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeko lanak zailak direnean Udalak jabetzen dituen etxebizitzekin usufruktu edo erabilera permuta martxan jartzea.
- Tito: Eraikinen kasuan, Txomiñenea pilotalekuko aldagelek lehentasuna dute.
- Izaro: herritarren arreta zerbitzua zabaldu beharko litzateke, ordutegi zabalagoekin. Badirudi asmo hori badagoela. Egungo sistemak sail ezberdinen arabera funtzionatzen du, espazio ezberdinetan.

ORDEZKARI POLITIKOAK 2

OP2	ORDEZKARI POLITIKOAK
Helburua	Ordezkarri politikoekin batera irisgarritasunari dagozkion jarduketei buruzko diagnostiko partekatua adostea eta urteroko irisgarritasun gaientzako aurrekontua zehaztea.
Iraupena	60 minutu
Noiz	Azaroak 14, 16:00.
Non	Udaletxeko batzar-aretoan
Deitutakoak	Ordezkarri politikoak
Etorritakoak	Xabier Urdangarin, alkatea Andoni Gartzia, zinegotzia Naroa del Orden, zinegotzia Aitor Guemes, zinegotzia Ainara Vazquez, zinegotzia Bea Lasagabaster, zinegotzia Joseba Ilari, zinegotzia
Arduradun teknikoa	Izaro Aizpurua, Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partaidetza saileko teknikaria
Saioaren arduraduna	Miren Vives eta Patxi Galarraga, Projekta Urbes
Erabilitako materiala	Aurkezpena: https://labureus/Astigarraga-Irisgarritasuna-Aurkezpena02 Jarduketa proposamen taula Laurtekoa antolatze taula eta aurrekontu fitxak

Lanketaren aurkezpena

Aparteko esku-hartzeak zeintzuk diren aipatu eta egingo den lanketatik kanpo utziko direla azaldu da: hauek denbora eta aurrekontu propioak baitituzte. Ondoren, urtero irisgarritasun gaietarako urteko konprometitu daitekeen aurrekontua zehazteko eskatu zaie, eta 90.000-100.000 euro izan daitezkeela erabaki da.

10.000	10.000	10.000	10.000	10.000
10.000	10.000	10.000	10.000	10.000
10.000	10.000	10.000	10.000	10.000

Teknikariei erakutsi zitzaion jarduketa proposamen taula hauen ekarpenekin osatu da, laugarren atal bat gehitu delarik:

Espazio publikoan

- Auzo-taxi zerbitzua

Udal-irigarria


- Udal-arreta irigarria (HAZ): gunea + zerbitzua + ordutegia
- Udal-informazio ulerterraza garatzeko proiektu pilotoa (aholkularitza+laguntza teknikoa+ebaluazioa)

Proposamenei ekarpenak

- Atsedenguneei buruz: gaur egun herrigunean dauden eta erabiltzen ez diren autobus markesinak topagune eta atsedengune gisa erabiltzen dira, batez ere Correos-ekoa. Hauek hobeto ekipatu eta erabilera informal hau legitimizatzea proposatu da.
- Kale Nagusiko komun publikoaren ondoan dagoen hormaren zati bat eraisteko proiektua dago, espazioaren segurtasun pertzepzioa areagotzeko asmoarekin.
- Ergobian, eraiki berri den etxebizitza eraikineko behe-solairuan, Udalak lokal bat eskuratuko du. Auzo-lokala bilakatzea da asmoa, eta lokal horrek erabilera publikoko komuna izango du.
- Eraikin publikoetako sarbide irigarriei buruz, Udaletxea bera da premia handiena duena.
- Ostalaritzari komun irigarriak eraikitzeke diru-laguntzak emanez gero, komun horiek erabilera publikora bideratzea proposatu da. Jarduketa honek barne hartu beharko luke establezimenduak dituen erabilerak ere modu irigarrian adieraztea.
- Seinaleztapen orok irisgarritasun fisiko eta sentsorialaz gain, kognitiboa ere kontuan hartzea proposatu da, piktograma bateratuak erabiliz.
- Seinaleztapen irigarriaren adibide gisa ibai-parkekoa aipatu da.
- Herritarren Arreta Zerbitzu (HAZ) egitasmoa martxan dago jada.
- Aldatu beharreko adibidetzat zergabiltzeta zerbitzua aipatu da, kokapenak ez baitu intimitaterik ahalbidetzen.
- Emakumeon Etxeak badu egokitu beharra, bertako langileek adierazi dutenez: intimitatea bermatzeko ate bikoitzen beharra adierazi da eta komunak ere egokitzapenak behar ditu.


Lanketa

Lanketarako 90.000€-ko laurteko aurrekontua mahai gainean irudikatu da eta parte-hartzaileei leheneste lana eskatu zaie.




1. urtea

- Udal-eraikinetako sarbide irisgarriak (ateak, seinaleztapena, informazioa...)
- Udal-eraikin bateko komuna egokitu.
- Merkataritza eta ostalaritza irisgarriak: laguntza teknikoa kontratatu.
- Bidegurutze eta oinezko pasabide irisgarriak.
- Eskaileretako segurasun eta irisgarritasun maila hobetzea.



2. urtea

- Ibilbide iragarrien seinaleztapen eta komunikazioa.
- Etxebizitza eraikin iragarriak.
- Merkataritza eta ostalaritza iragarriak, irudia barne.
- Bidegurutze eta oinezko pasabide iragarriak.
- Eskaileretako segurtasun eta iragarritasun maila hobetzea.
- Atsedengune txikiak (aterpea, eserlekua, iturria)
- Erreserbatutako aparkalekuak sortu eta seinaleztatu.



3. urtea

- Emakumeon Etxea egokitu
- Merkataritza eta ostalaritza iragarriak, irudia barne.
- Oinezko pasabideen segurtasun eta iragarritasun maila hobetzea.
- Kale Nagusiko komun publikoa egokitu.
- Bidegurutze eta oinezko pasabide iragarriak.
- Eskaileretako segurtasun eta iragarritasun maila hobetzea.



4. urtea

- Etxebizitza eraikin irisgarriak.
- Zergabilketa arreta gunea.
- Udal-arreta irisgarria (HAZ): gunea, zerbitzua eta ordutegia.
- Udal-informazio ulerterraza garatzeko proiektu pilotoa.
- Merkataritza eta ostalaritza irisgarriak, irudia barne.
- Bidegurutze eta oinezko pasabide irisgarriak.
- Eskaileretako segurtasun eta irisgarritasun maila hobetzea.
- Erreserbatutako aparkalekuak sortu eta seinaleztatu.

Taula, ekarpenak jaso eta gero (aurrekontuak gutxi gora beherakoak dira):

ASTIGARRAGA IRISGARRIAGOA					
FITXA	ID	JARDUKETA	AURREKON TUA	UD	GUZTIRA
		APARTEKO JARDUKETAK			1.660.000
IG02	extra	Apeztegiko igogailua			350.000
IG04	extra	Galtzaur-Txoritokieta igogailua			550.000
IG03	extra	Anuskako igogailua			250.000
HMJP 2.11	extra	27 poligonoko igogailua			210.000
HMJP 3.1	extra	Galtzaur "superetxadia": oinezkoen lehentasuna			300.000
tek	extra	Txomiñenea Pilotalekuko aldagela irisgarriak (kantxa+aldagelak)			---
E01	extra	Kiroldegia eraberritzea			---
		ESPAZIO PUBLIKOA			480.000
-	urtero	Merkataritza eta ostalaritza irisgarriak, irudia barne (laguntza teknikoaren kontratazioa eta diru-laguntzak)	15.000	4	60.000
-	urtero	Etxebizitza eraikin irisgarriak (diru-laguntza)	20.000	4	80.000
-	puntuala	Ibilbide irisgarrien seinaleztapena eta komunikazioa	20.000	1	20.000
-	urtero	Eskaileretako segurtasun eta irisgarritasun mailak hobetu (zoladura, eskubanda, seinaleztapena) (1-2 ud)	10.000	4	40.000
-	urtero	Oinezko pasabideen segurtasun eta irisgarritasun maila hobetu (ukimen-zoladura, koskak, seinaleztapena) (4-5 ud)	10.000	2	20.000
-	urtero	Bidegurutze eta oinezko pasabide goratuak (2-4 ud)	20.000	2	40.000
-	puntuala	Komun publiko berria (1 ud)	60.000	1	60.000
-	urtero	Atsedengune txikiak (aterpea, eserlekua, iturria) (1 ud)	10.000	4	40.000
-	urtero	Erreserbatutako aparkalekuak sortu eta seinaleztatu (10 ud)	10.000	2	20.000
tek	urtero	Auzo-taxi zerbitzua	20.000	4	80.000
HMJP 2.3	urtero	Garraio publiko zerbitzuen informazio irisgarria	5.000	4	20.000
		ERAIKINAK			210.000
-	puntuala	Udal-eraikinetako sarbide irisgarriak (ateak, seinaleztapena, informazioa...)	40.000	1	40.000
-	puntuala	Udal-eraikin bateko komuna egokitu (1 ud)	10.000	4	40.000
E02	puntuala	Komun-publiko egokitu (Kale Nagusia 21)	10.000	1	10.000
E03	puntuala	Txomiñenea Pilotalekuko kantxara sarbide irisgarria	40.000	1	40.000
pol	puntuala	Zerga-bilketa arreta gunea egokitu	20.000	1	20.000
pol	puntuala	Emakumeon Etxea egokitu	60.000	1	60.000
		UDAL-IRISGARRIA			30.000
-	puntuala	Udal-arreta irisgarria (HAZ): gunea + zerbitzua + ordutegia	20.000	1	20.000
-	puntuala	Udal-informazio ulerterraza garatzeko proiektu pilotoa (aholkularitza+laguntza teknikoa+ebaluazioa)	10.000	1	10.000

HERRITARRAK 2

H2	HERRITARRAK
Helburua	Herritarrei prozesua aurkeztea eta ekarpenak jasotzea
Iraupena	60 minutu
Noiz	Azaroak 14, 18:00.
Non	Erribera Kulturgunean
Deitutakoak	Herritarrak
Etorritakoak	Emakume bat
Arduradun teknikoak	Izaro Aizpurua, Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partaidetza saileko teknikaria
Saioaren arduraduna	Miren Vives eta Patxi Galarraga, Projekta Urbes
Erabilitako materiala	Jarduketa proposamen taula Laurtekoa antolatzeke taula eta aurrekontu fitxak

Lanketaren aurkezpena

Pertsona bakarra azaldu denez, lanketaren orde, proposamenen azalpenak ematearekin batera, bere ekarpenak jaso dira.

Ekarpenak

- Argiztapena:
 - Urumea hiribidean farolak kotxeentzat pentsatuta daude.
 - Hilerritik aurrera, landa-eremuan, argiztapenik ez dago, zenbain lekutan eguzki-energia erabiltzen duten farolak ezartzen hasi dira.
- Terminologiari garrantzia eman: pertsona gehienek ez dute jasotzen duten informazioa ulertzen (adibidez, irisgarritasuna, egokitzea... hitz horiek arrotzak dira adinduentzat).
- Ibilbide irisgarriak: adinduekin batera landu, partaidetza sustatzeko.
- Oinezko pasabideak eta oinezkoen lehentasuna duten eremuak: seinaleztatzeko modua aztertu, gidarientzat errazagoa izan dadin.
- Galtzada eta espaloia berdintzerakoan kontuan izan uraren ibilbidea.
- Autobus geroak, orokorrean, txikiak dira, ez daude euriarekiko babestuta eta argiztapen propioa behar dute.
- Beste komun bat baino, diru hori argiztapena hobeto banatzeko erabiltzea nahiago: leku batzutan argiztapen gehiegi dago eta beste batzutan gutxi.
- Lizeagako pasealekuan itzal falta nabari da, batez ere udan. Gainera, asfaltoak beroa isurtzen du.
- Atsedenguneetako eserlekuen antolamenduak elkarbizitza sustatu dezala.
- Anbulatorioa auzo berrira ekarri gero, kontuan izan adindu asko herrigune zaharrean geratuko direla (auzo-taxia edo herribus zerbitzuari dagokionez).
- Lokal hutsak etxebizitza bilakatzea aztertu, auzo zaharrak bizitza eduki dezan. Udalak piloto bat egin dezake eta sustatzaile pribatuak animatu.
- Informazio irisgarria garraio publikoan oso beharrezkoa da.
- Sagardo boladan, autobusa Hernanitik beteta dator eta ez da Astigarragan geratu ere egiten.

- Gaztelekua kultur etxe zaharrean dago eta eraikin hori oso preziatua da herrian soilik gazteentzat izan dadin. Partaidetza prozesua egin zen, baina informazioa ez da landa-eremura iristen.
- Herritarren ekarpenetarako buzoiek nola funtzionatzen dute?
- HAZ auzo zaharrean jartzea ondo legoke.
- Informatzeko proiektu pilotoa egitea ideia ona da.
- Auzo zaharrean adinekoei zuzendutako kirola eta topaketak sustatzea espazioa biziberritzeko ondo legoke.

ELKARRIZKETA

-	-
Helburua	Desgaitasunen bat duten zenbait haurren gurasoek egunerokotasunean dituzten zailtasunei buruz hitzegitea, irisgarritasunarekin zerikusia duten ekarpenak planean txertatu ahal izateko.
Iraupena	90 minutu
Noiz	Azaroak 24, 17:00.
Non	Ikatza tabernan
Deitutakoak	Manoli (Juleneren ama), Leire (Lideren ama) eta Sandra (Alejandroren ama).
Etorritakoak	Leire eta Iñigo (Lideren gurasoak), Sandra (Alejandroren ama).
Arduradun teknikoak	-
Saioaren arduraduna	Miren Vives eta Patxi Galarraga, Projekta Urbes
Erabilitako materiala	-

Elkarrizketa

Elkarrizketaren mamia, espazio eta ekipamenduen irisgarritasun gabezieta baino gehiago zentratu zen **desgaitasuna duten haurren eta hauen familiak gizarteratzeko dituzten arazoetan**. Adibidez, udalerrri mailan antolatzen diren jarduera gehienetan ez da kontuan hartzen aniztasun funtzionala duten pertsonen beharrik, eta are gutxiago aniztasun funtzionala duten haurretan. Honek, haurrak ez ezik, hauek zaintzaileak eta familiak gizartetik aldentzen ditu, egunorokotasunean eta bereziki egun berezietan (jaialdi edo festetan).

Isolatze sozialaz gain, familia hauek aipatu duten beste gai garrantzitsu bat, beraien artean harremanak sortzeko duten zailtasuna da: beren seme-alabak ikastetxe ezberdinetan eskolatuta daudenez, eskolaz kanpoko jarduerak ere elkarte ezberdinetatik bideratuta egiten dituzte. Hori dela eta, Astigarragan bizi arren, ez dute elkarren berri eta horrek asko zailtzen du elkarrekintza.

Desgaitasunarekin zerikusia duten zenbait kolektibo artatzen dira, baina haur eta nerabeen behar berezietan gutxitan pentsatzen da. Adibidez, Matiak eskaintzen duen zaintzaile titulua adinekoen zaintzan oinarrituta dago.

Proposamenak

- Gaiari buruz gizarte kontzientzia pizteko kanpaina egitea.
- Haurrentzat eta nerabeentzat psikomotrizitate saioak antolatu, adibidez larunbat goizetan, bi helburu nagusirekin: bata, gazteei aisialdi zerbitzu bat ematea herrian bertan eta bestea, beraien familiak elkar ezagutzeko aukera izatea.

UDAL-ERAIKINEI BURUZKO GALDETEGIA

Udal-teknikariekin izandako lehen saioarekin batera galdetegi bat banatu zitzaion, honako galderei erantzuteko eskatuz.

Zeri buruz

izena _____ telefonoa _____
Ezkerreko alorrean bostze nahi al duzu? _____ 8. gela _____

2017ko Irisgarritasun Planari* dagokionez
(*2017ko planari 11ak buruzko informazioa emateko)
2017ko moldaketa edo birgaitzerik egin al du? (Berria bada, deskribatu laburki.)

2023ko Eguneraketari dagokionez

Irisgarritasunari dagokionez, beharrik detektatu al duzu erabileraren erabileran?

Gizarte inklusioari dagokionez, beharrik edo aukerarik detektatu al duzu?

Zaintza lanari dagokionez, beharrik detektatu al duzu?

Balazten urteetarako moldaketarik edo birgaitzerik aurreikusi al duzu?

Aurreikusita egon ez arren, zuen esperientziatik zein aldaketa proposatuko zenituzkete eraikinean?

Eraikinak kanpo-espazioarekin duen harremana egokia iruditzen al duzu? Nola hobetuko zenituzkete?

Eraikinean ematen den zerbitzua, programazioa edo informazioa iragarriak direla iruditzen al duzu? Ezer aldatuko zenituzkete?

Zuri buruz

- Izena, Telefonoa, E-posta.
- Eraikina elkarrekin ikustea nahi al duzu?

2017ko Irisgarritasun Planari* dagokionez. Fitxak galdetegi 2. orrialdeko esteketan daude eskura.

- 2017tik moldaketa edo birgaitzerik egin al da? Hala bada, deskribatu laburki.

2023ko eguneraketari dagokionez

- Irisgarritasuna: beharrik detektatu al duzue eraikinaren erabileran?
- Gizarte inklusioa: beharrik edo aukerarik detektatu al duzue?
- Zaintza lanak: beharrik detektatu al duzue?
- Datozen urteetarako moldaketarik edo birgaitzerik aurreikusi al duzue?
- Aurreikusita egon ez arren, zuen esperientziatik zein aldaketa proposatuko zenituzkete eraikinean?
- Eraikinak kanpo-espazioarekin duen harremana egokia iruditzen al zaizue? Nola hobetuko zenituzkete?
- Eraikinean ematen den zerbitzua, programazioa edo informazioa iragarriak direla iruditzen al zaizue? Ezer aldatuko zenituzkete?

Guztira 11 eraikinei buruzko informazioa jaso da. Gehienetan ez da irisgarritasunarekin lotutako berariazko jarduketarik egin 2017ko Planaz geroztik.

Zenbait eraikinetarako eraberritze edota eraldatze lanak aurreikusi dira eta horrek, noski, irisgarritasun baldintzetan eragin positiboa izango du. Kiroldedia da esanguratsuena, baina ez bakarrik: azken urteotan erabilera aldaketa ugari egin dira, batez ere Erribera kultur etxea eraiki zenetik. Datozen urteetan erabilera aldaketa gehiago egingo dira, beraz, irisgarritasunari dagozkion egokitzapenak erabilera berri horiei lotuta egin beharko dira.

Ondorengo tauletan jaso dira teknikariek egindako ekarpenak.

01	Udaletxea	
	2017tik moldaketa edo birgaitzerik egin al da?	Ez
	Irigarritasunari dagokionez, beharrik detektatu al duzue eraikinaren erabileran?	Ganbarara ez da igogailua iristen eta Hirigintza eta Obretako solairuartetara ezta. Behe solairuko komunak soilik betetzen dute irigarritasua araudia.
	Gizarte inklusioari dagokionez, beharrik edo aukerarik detektatu al duzue?	Mugimendua mugatua duen ezindu batek ezingo luke solairu guztietara igotzeko arazoak.
	Zaintza lanei dagokionez, beharrik detektatu al duzue?	Eraikineko eskailerak nagusiak kaltetuak daude eta ez da konponketarik egin. Baita lpar mnendebaldera ko fatxadetalpo leihoak nahiko kaltetuak daude, eta haizeteak daudenean leihoetatik euria sartzen da. Hirigintza maiz eskatu dugu berriak ipintzea.
	Datozen urteetarako moldaketarik edo birgaitzerik aurreikusi al duzue?	Bai, baina osorik egitea dena urteak atzeratuko du.
	Aurreikusita egon ez arren, zuen esperientziatik ze aldaketa proposatuko zenituzkete eraikinean?	
	Eraikinak kanpo-espazioarekin duen harremana egokia iruditzen al zaizue? Nola hobetuko zenukete?	
	Eraikinean ematen den zerbitzua, programazioa edo informazioa irigarriak direla iruditzen al zaizue?	

02	Kale Nagusiko komun publikoak	
	2017tik moldaketa edo birgaitzerik egin al da?	Ez
	Irigarritasunari dagokionez, beharrik detektatu al duzue eraikinaren erabileran?	2017ko berak.
	Gizarte inklusioari dagokionez, beharrik edo aukerarik detektatu al duzue?	
	Zaintza lanei dagokionez, beharrik detektatu al duzue?	
	Datozen urteetarako moldaketarik edo birgaitzerik aurreikusi al duzue?	
	Aurreikusita egon ez arren, zuen esperientziatik ze aldaketa proposatuko zenituzkete eraikinean?	
	Eraikinak kanpo-espazioarekin duen harremana egokia iruditzen al zaizue? Nola hobetuko zenukete?	
	Eraikinean ematen den zerbitzua, programazioa edo informazioa irigarriak direla iruditzen al zaizue?	

03	Bake epaitegia	
	2017tik moldaketa edo birgaitzerik egin al da?	Ez
	Irigarritasunari dagokionez, beharrik detektatu al duzue eraikinaren erabileran?	2017ko berak.
	Gizarte inklusioari dagokionez, beharrik edo aukerarik detektatu al duzue?	
	Zaintza lanei dagokionez, beharrik detektatu al duzue?	
	Datozen urteetarako moldaketarik edo birgaitzerik aurreikusi al duzue?	
	Aurreikusita egon ez arren, zuen esperientziatik ze aldaketa proposatuko zenituzkete eraikinean?	
	Eraikinak kanpo-espazioarekin duen harremana egokia iruditzen al zaizue? Nola hobetuko zenukete?	
	Eraikinean ematen den zerbitzua, programazioa edo informazioa irigarriak direla iruditzen al zaizue?	

04	Kiroldegia	
	2017tik moldaketa edo birgaitzerik egin al da?	Kirol aretoetako aireztatzea indartu da eta igerileku handiaren barruan igerileku ertain bat sortzeko egitura instalatu da.
	Irigarritasunari dagokionez, beharrik detektatu al duzue eraikinaren erabileran?	Irigarritasunari dagokionean aurreko behar berdina dira.
	Gizarte inklusioari dagokionez, beharrik edo aukerarik detektatu al duzue?	Ez da beharrik detektatu.
	Zaintza lanei dagokionez, beharrik detektatu al duzue?	Ez da beharrik detektatu.
	Datozen urteetarako moldaketarik edo birgaitzerik aurreikusi al duzue?	Bai. Kiroldegia era bat eraberritzeko proiektua egina dago eta datozen urteetan egikarituko da.
	Aurreikusita egon ez arren, zuen esperientziatik ze aldaketa proposatuko zenituzkete eraikinean?	Eraberritze proiektuan aldaketa guztiak aurreikusten dira.
	Eraikinak kanpo-espazioarekin duen harremana egokia iruditzen al zaizue? Nola hobetuko zenukete?	Eraberritze proiektuak kiroldegiaren inguruko espazioetan egingo diren aktazioak aurreikusten ditu.
	Eraikinean ematen den zerbitzua, programazioa edo informazioa irigarriak direla iruditzen al zaizue?	Bai.

05 Txomiñenea pilotalekua	
2017tik moldaketa edo birgaitzerik egin al da?	Estalkiko egituraren konponketak egin ziren, argiteria hobetu eta margoketa osoa egin zen. Honez gain, Hesi berria jarri zen pasa den urtean. Bai, izan dira kanpoaldera pribatutasuna lortzeko eta armailetan ere, baino ez zaio irisgarritasunik eman.
Irisgarritasunari dagokionez, beharrik detektatu al duzue eraikinaren erabileran?	Instalazioa ez da irisgarria, baina behar berezirik ez dugu nabaritu.
Gizarte inklusioari dagokionez, beharrik edo aukerarik detektatu al duzue?	Ez da beharrik detektatu
Zaintza lanei dagokionez, beharrik detektatu al duzue?	Ez.
Datozen urteetarako moldaketarik edo birgaitzerik aurreikusi al duzue?	Ez. Ekipamendua irisgarriagoa egiteko proposamen bat landu zen, baina geldirik dago gaia.
Aurreikusita egon ez arren, zuen esperientziatik ze aldaketa proposatuko zenituzkete eraikinean?	Aldagela berriak eta irisgarriagoak egitea.
Eraikinak kanpo-espazioarekin duen harremana egokia iruditzen al zaizue? Nola hobetuko zenukete?	Bai.
Eraikinean ematen den zerbitzua, programazioa edo informazioa irisgarriak direla iruditzen al zaizue?	Bai.

06 Zarkumendegiko futbol zelaia	
2017tik moldaketa edo birgaitzerik egin al da?	Aldageletan berritze sakona egin zen.
Irisgarritasunari dagokionez, beharrik detektatu al duzue eraikinaren erabileran?	Ez dugu detektatu.
Gizarte inklusioari dagokionez, beharrik edo aukerarik detektatu al duzue?	Ez dugu detektatu.
Zaintza lanei dagokionez, beharrik detektatu al duzue?	Ez dugu detektatu.
Datozen urteetarako moldaketarik edo birgaitzerik aurreikusi al duzue?	Ez.
Aurreikusita egon ez arren, zuen esperientziatik ze aldaketa proposatuko zenituzkete eraikinean?	Eraikuntza zaharra berritzea eta handitzea aldagelak bertan kokatzeko. Honez gain, aparkalekuetako eremua handiago eta hobeago bat (asfaltatua eta argizatua) beharko litzateke.
Eraikinak kanpo-espazioarekin duen harremana egokia iruditzen al zaizue? Nola hobetuko zenukete?	Ez. Industriadun baten erdian gelditu da kokatua.
Eraikinean ematen den zerbitzua, programazioa edo informazioa irisgarriak direla iruditzen al zaizue?	Bai.

07	Auzolan pilotalekua	
	2017tik moldaketa edo birgaitzerik egin al da?	Bertako ludoteka berritu da.
	Irisgarritasunari dagokionez, beharrik detektatu al duzue eraikinaren erabileran?	Ekipamendu ez da irisgarria, baina ez da beharrik detektatu.
	Gizarte inklusioari dagokionez, beharrik edo aukerarik detektatu al duzue?	Ez dugu detektatu.
	Zaintza lanei dagokionez, beharrik detektatu al duzue?	Ez dugu detektatu.
	Datozen urteetarako moldaketarik edo birgaitzerik aurreikusi al duzue?	Kirol instalazioaren azterketa bat egin zen eta proposamen batzuk atera ziren, baina gaia berehorretan gelditu zen.
	Aurreikusita egon ez arren, zuen esperientziatik ze aldaketa proposatuko zenituzkete eraikinean?	Ekipamenduan aldaketa sakonak behar ditu.
	Eraikinak kanpo-espazioarekin duen harremana egokia iruditzen al zaizue? Nola hobetuko zenukete?	
	Eraikinean ematen den zerbitzua, programazioa edo informazioa irisgarriak direla iruditzen al zaizue?	Bai.

08	Emakumeon Etxea	
	2017tik moldaketa edo birgaitzerik egin al da?	
	Irisgarritasunari dagokionez, beharrik detektatu al duzue eraikinaren erabileran?	Eraikina fisikoki eskuragarria izan daitekeen arren guztientzat, kokalekua dela eta zenbait emakumerentzat gune ez-segurua da. Konfidentzialtasuna mantentze aldera, tabernez inguratuta egotea ez da diskreziorako espaziorik egokiena. Atzeko atea eduki arren, honen inguruan ere tabernak daude.
	Gizarte inklusioari dagokionez, beharrik edo aukerarik detektatu al duzue?	Beharra egon badago, migrazio prozesuan dauden emakumeentzako zaila da Emakumeon Etxean parte hartzea. Alde batetik lan karga eta ordutegien zailtasuna dute eta bestetik, kultura dela eta zailtasunak dituzte etortzeko.
	Zaintza lanei dagokionez, beharrik detektatu al duzue?	Galdera hau ez dugu guztiz ulertzen. -Zaintza lanetan aritzen diren emakumeak gehienak migranteak dira, "interna" moduan egiten dute lan eta sozializatzeko denbora gutxi dute. - Emakumeon etxean gazteek lan egiten dute zaintza zerbitzua eskaintzen eta hauen lan baldintzat hobetze aldera, kontratupean lan egitea nahi dugu. - Garbitzaileentzako ordu gehiago behar ditugu etxearen

		igienea bermatu nahi badugu. Gero eta gehiago erabiltzen den espazioa da eta lurra zein komuna garbitzeaz gain etxeak askoz behar gehiago ditu. Kortink, alfonbrak, kuxinak, aulkiak, almazena, sukaldea... Guzti hauek garbi mantentzeko ordutegi egoki bat behar du Emakumeon Etxeak.
	Datozen urteetarako moldaketarik edo birgaitzerik aurreikusi al duzue?	Bai, etxea espazio bakar batean dago antolatua eta 2 jarduera aldi berean aurrera eramateko zailtasunak sortzen dira. Harrera gunea ere ez da batere diskretua. Eraikinaren kokalekuaren arazoa kontuan hartuta, etorkizun batean Emakumeon Etxea beste eraikin batean kokatzea ikusten dugu. Esaterako, anbulategian. Diskretuagoa da, handiago, argiztapen onekoa eta parkea du haurrek jolastu ahal izateko.
	Aurreikusita egon ez arren, zuen esperientziatik ze aldaketa proposatuko zenituzkete eraikinean?	Aurreko galderan erantzun dugu.
	Eraikinak kanpo-espazioarekin duen harremana egokia iruditzen al zaizue? Nola hobetuko zenukete?	Asko hobetu da atzeko atea irekitzearekin, diskrezioari dagokionez eta aurreko sarrerak ere ikusgarritasuna lortu du itxura berria ematearekin. Baina aurrez aipatu bezala, kanpo harremana ez da egokia tabernez inguratuta dagoelako. Bai bertaratu nahi duten emakumeengatik eta baita haurren ikuspegitik. Parke bat ondoan izatea aproposagoa da kalean jolasteko aukera izan dezaten.
	Eraikinean ematen den zerbitzua, programazioa edo informazioa irisgarriak direla iruditzen al zaizue?	-Bazkideei informazioa bidaltzen zaien arren, adin batetik aurrera zaila da teknologien bidez mezua ongi iristea. -Udal zerbitzuak etxean eskaintzen direnez Udal web orrian azaldu beharko lirateke.

09	Gaztelekua	
	2017tik moldaketa edo birgaitzerik egin al da?	
	Irigarritasunari dagokionez, beharrik detektatu al duzue eraikinaren erabileran?	Beharrik ez dugu nabaritu eraikin barruan, behar izan dugunetan, igogailua erabili izan dugulako.
	Gizarte inklusioari dagokionez, beharrik edo aukerarik detektatu al duzue?	eraikin barruko zerbitzuen informazioa ematen dituzten panel eta kartelek piktogramak eduki behar dituztela uste dugu. Azken solairua ez dago seinalizatuta, ezta gaztelekua ere (brailez ezta ere). Uste dugu solairuetan gauzak ez daudela seinalizatuta (komunak non dauden, zerbitzu bakoitza...)
Aholkularitza eta
idazketa

Projekta Urbes

EKINTZA PLANA

AURKIBIDEA

EKINTZA PLANA..... 4

Bidegurutze eta oinezko pasabide irisgarriak eta seguruak..... 6

Eskailera eta arrapala irisgarriak eta seguruak..... 9

Ibilbide irisgarrien seinaleztapena eta komunikazioa..... 11

Autobus zerbitzuei buruzko informazio irisgarria..... 13

Atsedenguneak..... 16

Erreserbatutako aparkaleku egokituak..... 19

Zoladuren konponketa..... 21

Merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduen egokitzapena..... 22

Etxebizitza eraikinetako atarien eta espazio komunen egokitzapena..... 25

Udal-eraikinetako sarbideetan seinaleztapena jartzea..... 28

Udaletxeko atariaren egokitzapena..... 31

Emakumeon Etxearen egokitzapena..... 33

Kale Nagusiko komun publikoaren egokitzapena..... 35

Auzo-taxi zerbitzua..... 37

Udal-informazio irisgarria..... 40

Udal-arreta (HAZ) zerbitzu irisgarriak..... 43

Aniztasun funtzionala duten haur eta nerabeentzako aisialdi gunea..... 46



“Diseinu onak gaitu egiten du, eta txarrak, desgaitu”

Stockholmeko Adierazpena,
2004ko maiatzaren 9a

EKINTZA PLANA

Ekintza Plana osatzen duten jarduketak parte-hartze prozesuaren ondorio zuzena dira. Datozen lau urteetara begira pentsatu eta antolatu dira, eta horretarako, lanketa honetatik kanpo utzi dira agenda propioa duten aparteko jarduketak handiak edo konplexuak. Irisgarritasunari dagokionez, egunerokotasunean eragin zuzena eta berehalakoa izango duten esku-hartzeak lehenetsi dira.

Jarduketak hiru lan esparrutan banatu dira:

- Espazio publikoan egingo direnak (EP)
- Eraikinei dagozkienak (ER)
- Udalaren jarduerak irisgarriagoak izatera bideratuta daudenak (UI)

Parte-hartze saioetan jarduketak aukeratzeko eta laurtekoa antolatzeko erabili zen taularen azken bertsioa da honakoa:

ID	JARDUKETA	2024	2025	2026	2027
EP.01	Bidegurutze eta oinezko pasabide irisgarriak eta seguruak	20.000		20.000	
EP.02	Eskailera eta arrapala irisgarriak eta seguruak		10.000		10.000
EP.03	Ibilbide irisgarrien seinaleztapena eta komunikazioa			20.000	
EP.04	Autobus zerbitzuei buruzko informazio irisgarria		10.000		
EP.05	Atsedenguneak		10.000		10.000
EP.06	Erreserbatutako aparkaleku egokituak		10.000		10.000
EP.07	Zoladuren konponketa	5.000	5.000	5.000	5.000
ER.01	Merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduen egokitzapena	15.000	20.000	20.000	
ER.02	Etxebizitza eraikinetako atarien eta espazio komun en egokitzapena		40.000		40.000
ER.03	Udal-eraikinetako sarbideetan seinaleztapena jartzea				20.000
ER.04	Udaletxeko atariaren egokitzapena	40.000			
ER.05	Emakumeon Etxearen egokitzapena	40.000			
ER.06	Kale Nagusiko komun publikoaren egokitzapena			20.000	
UI.01	Auzo-taxi zerbitzua		15.000		
UI.02	Udal-informazio irisgarria				10.000
UI.03	Udal-arreta (HAZ) zerbitzu irisgarriak		15.000	15.000	
UI.04	Aniztasun funtzionala duten haur eta nerabeentzako aisialdi gunea	10.000	10.000		
GUZTIRA		130.000	145.000	100.000	105.000

Lehentasun maila eta aurrekontu osoa jasotzen dituen taula honetan laburbildu dira guztiak:


ID	JARDUKETA	LEHENTASUNA	AURREKONTUA
EP.01	Bidegurutze eta oinezko pasabide irisgarriak eta seguruak	Altua	40.000
EP.02	Eskailera eta arrapala irisgarriak eta seguruak	Ertaina	20.000
EP.03	Ibilbide irisgarrien seinaleztapena eta komunikazioa	Ertaina	20.000
EP.04	Autobus zerbitzuei buruzko informazio irisgarria	Ertaina	10.000
EP.05	Atsedenguneak	Ertaina	20.000
EP.06	Erreserbatutako aparkaleku egokituak	Ertaina	20.000
EP.07	Zoladuren konponketa	Ertaina	20.000
ER.01	Merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduen egokitzapena	Ertaina	55.000
ER.02	Etxebizitza eraikinetako atarien eta espazio komunen egokitzapena	Ertaina	80.000
ER.03	Udal-eraikinetako sarbideetan seinaleztapena jartzea	Ertaina	20.000
ER.04	Udaletxeko atariaren egokitzapena	Altua	40.000
ER.05	Emakumeon Etxearen egokitzapena	Altua	40.000
ER.06	Kale Nagusiko komun publikoaren egokitzapena	Ertaina	20.000
UI.01	Auzo-taxi zerbitzua	Altua	15.000
UI.02	Udal-informazio irisgarria	Ertaina	10.000
UI.03	Udal-arreta (HAZ) zerbitzu irisgarriak	Altua	30.000
UI.04	Aniztasun funtzionala duten haur eta nerabeentzako aisialdi gunea	Altua	20.000
GUZTIRA			480.000

Jarduketaren definizio zehatza hurrengo fitxetan jaso da:


Bidegurutze eta oinezko pasabide irisgarriak eta seguruak

Identifikazioa		
Kodea	EP.01	
Lerro estrategikoa	Espazio publiko irisgarria	
Jarduketa	Bidegurutze eta oinezko pasabide irisgarriak eta seguruak	
Izaera	Teknikarien lanketa Proiektua eta obra	
Irisgarritasun	Fisikoa, sentSORIALA, kognitiboa	
Lehentasuna	Altua	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Ertaina	
Teknikoa	Altua	
Ekonomikoa	Ertaina	
Azalpena		
Deskribapena	Bidegurutze eta oinezko pasabideen irisgarritasun eta segurtasun mailak hobetzen jarraituko da, irizpide berberak egoera bakoitzera egokituz eta zenbait gunetan araudiak jasotzen ez dituen irtenbideak ezarriz. Aurreikuspena da Udaleko baliabideak nahikoak izango direla jarduketa garatzeko eta ebaluatzeko. >> Ikus irudiak fitxaren amaieran.	
Helburuak	- Bidegurutze eta oinezko pasabideetako irisgarritasuna (fisikoa, sentSORIALA, kognitiboa) eta segurtasuna hobetzea. - Araudiaren aplikazio zuzena ezinezkoa denean edo arazoak eragiten dituen gunetan, irtenbide bereziak ezartzea irizpide homogeenok erabiliz. - Herrigunean oinezkoen lehentasuna indartzea, eta oinezko pasabideetan ikusgaitasuna bermatzea (egunez zein gauez). - Herriguneko trafikoaren abiadura baretzea.	
Eragileak		
Arduradunak	Obrak eta zerbitzuak	
Udalekoak	Udaltzaingoa	
Udalaz kanpokoak		
Programazioa		Aurrekontua
2024	Proiektuen garapena eta gauzatzea	20.000
2025	-	-
2026	Proiektuen garapena eta gauzatzea	20.000
2027	-	-

Zebra-bidea norabide bakarreko galtzadan




Zebra-bidea bi norabideko galtzadan



Eskailera eta arrapala irisgarriak eta seguruak

Identifikazioa		
Kodea	EP.02	
Lerro estrategikoa	Espazio publiko irisgarria	
Jarduketa	Eskailera eta arrapala irisgarriak eta seguruak	
Izaera	Teknikarien lanketa Proiektua eta obra	
Irisgarritasun	Fisikoa, sentSORIALA, kognitiboa	
Lehentasuna	Ertaina	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Ertaina	
Teknikoa	Ertaina	
Ekonomikoa	Baxua	
Azalpena		
Deskribapena	Herrian dauden eskaileren eta arrapalen irisgarritasun maila hobetzeko asmoa dago, ahal den neurrian araudiaren arabera egokituz. Aurreikuspena da Udaleko baliabideak nahikoak izango direla jarduketa garatzeko eta ebaluatzeko. >> Ikus irudiak fitxaren amaieran.	
Helburuak	- Herriguneko eskailera eta arrapala garrantzitsuenetako irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzea. - Eskailera eta arrapala nagusien sarbideak irizpide homogeneoekin egokitzea herri osoan.	
Eragileak		
Arduradunak	Obrak eta zerbitzuak	
Udalekoak	Udaltzaingoa	
Udalaz kanpokoak		
Programazioa		Aurrekontua
2024	-	-
2025	Proiektuen garapena eta gauzatzea	10.000
2026	-	-
2027	Proiektuen garapena eta gauzatzea	10.000


Eskaileren irisgarritasun ezaugarriak



Ibilbide irisgarrien seinaleztapena eta komunikazioa

Identifikazioa		
Kodea	EP.03	
Lerro estrategikoa	Espazio publiko irisgarria	
Jarduketa	Ibilbide irisgarrien seinaleztapena eta komunikazioa	
Izaera	Aholkularitza teknikoa Diseinua eta ekoizpena	
Irisgarritasun	Sentsoriala, kognitiboa	
Lehentasuna	Ertaina	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Altua	
Teknikoa	Ertaina	
Ekonomikoa	Altua	
Azalpena		
Deskribapena	Irisgarritasuna ardatz hartuz, herriko ibilbide, espazio eta baliabide nagusien seinaleztapena egiteko asmoa dago. Lanketa hau "EP.04-Autobus zerbitzuei buruzko informazio irisgarria" neurriarekin koordinatzea proposatzen da. Aurreikuspena da Udaleko baliabideak ez direla nahikoak izango jarduketa garatzeko eta ebaluatzeko. >> Ikus irudiak fitxaren amaieran.	
Helburuak	- Herriguneko gune eta eraikin nagusienak lotzen dituzten oinezko joan-etorri irisgarrienak nabarmentzea. - Irisgarri baxukoak bilakatuko diren oinezko ibilbideei buruz aldeztu aurretik ohartaraztea, eta alternatiba irisgarriagoak daudenean, horiek adieraztea. - Oinezko ibilbideetan irisgarritasunarekin lotutako elementuen kokapena eta ezaugarriak adieraztea. - Oinezkoen lehentasuna indartzea.	
Eragileak		
Arduradunak	Ingurumena	
Udalekoak	Komunikazioa, Kirola	
Udalaz kanpokoak		
Programazioa		Aurrekontua
2024	-	-
2025	-	-
2026	Proiektuen garapena eta gauzatzea	20.000
2027	-	-

Ibilbide irisgarrien seinaleztapena



Autobus zerbitzuei buruzko informazio irisgarria

Identifikazioa		
Kodea	EP.04	
Lerro estrategikoa	Espazio publiko irisgarria	
Jarduketa	Autobus zerbitzuei buruzko informazio irisgarria	
Izaera	Aholkularitza teknikoa Diseinua eta ekoizpena	
Irisgarritasun	Sentsoriala, kognitiboa	
Lehentasuna	Ertaina	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Altua	
Teknikoa	Ertaina	
Ekonomikoa	Altua	
Azalpena		
Deskribapena	Autobus zerbitzuei buruzko informazioa modu irisgarrian diseinatu nahi da, eta euskarri desberdinetara egokitu herritarrek eskura dezaten: seinaleztapenera (geralekuetan eta beste zenbait gunetan), paperezko eskuorrietara eta udal webgunera. Aurreikuspena da Udaleko baliabideak ez direla nahikoak izango jarduketa garatzeko eta ebaluatzeko. Neurri hau Astigarragako Mugikortasun Planean ere jaso da. >> Ikus jarduketaren deskribapen xehatua fitxaren amaieran.	
Helburuak	- Geralekuetan ordutegiei eta ibilbideei buruzko informazioa modu irisgarrian ematea, udalerrian jarriko den beste seinaleztapenarekin modu homogeenan. - Autobus zerbitzuetako irisgarritasunari buruzko informazioa ematea. - Informazioa herritarren esku jartzea, paperean zein euskarri digitalean. - Garraio publikoaren erabilera sustatzea.	
Eragileak		
Arduradunak	Ingurumena	
Udalekoak	Komunikazioa	
Udalaz kanpokoak	Autobus zerbitzu-emaileak	
Programazioa		Aurrekontua
2024	-	-
2025	Proiektuen garapena eta gauzatzea	10.000
2026	-	-
2027	-	-


Jarduketen deskribapen xehatua

Astigarragako Mugikortasun Planean jasotzen den bezala, autobus "geltoki-bikote guztietan diseinu bateratua eta informazio argi eta ulerterraza bermatzea. (...) Geltoki-bikote guztietan honako informazioa azalduko da:

- Geltokiaren izena.
- Autobusen maiztasuna.
- Autobusa pasako den ordua (zuzenean ala zeharka).
- Mapa bat, geltokiaren kokapenarekin.
- Zerbitzu-emaileari buruzko informazioa eta harremanetarako bideak."

Lanketa hau "EP.03-Ibilbide irisgarrien seinaleztapena eta komunikazioa" neurriarekin koordinatzea proposatzen da.

Autobus geltokien irisgarritasun ezaugarriak



Atsedenguneak

Identifikazioa		
Kodea	EP.05	
Lerro estrategikoa	Espazio publiko irisgarria	
Jarduketa	Atsedenguneak	
Izaera	Teknikarien lanketa Proiektua eta obra	
Irisgarritasun	Fisikoa, sentsoriala, kognitiboa	
Lehentasuna	Ertaina	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Ertaina	
Teknikoa	Altua	
Ekonomikoa	Altua	
Azalpena		
Deskribapena	Espazio publikoan aterpedun espazio babestuak jarri nahi dira, atsedenerako hornituak. Aurreikuspena da Udaleko baliabideak nahikoak izango direla jarduketa garatzeko eta ebaluatzeko. >> Ikus jarduketaren deskribapen xehatua fitxaren amaieran.	
Helburuak	- Oinezko ibilbide nagusietan babesa eta atsedena hartzeko aukera eroso eta erakargarriak bermatzea.	
Eragileak		
Arduradunak	Obrak eta zerbitzuak	
Udalekoak		
Udalaz kanpokoak		
Programazioa		Aurrekontua
2024	-	-
2025	Proiektuen garapena eta gauzatzea	10.000
2026	-	-
2027	Proiektuen garapena eta gauzatzea	10.000

Jarduketen deskribapen xehatua

Kontuan izan behar da -batez ere herrigunetik urrundu ahala- ibilaldien iraupena baldintzatzen duen faktore garrantzitsua dela atsedenerako aukera egokiak izatea. Atsedenguneak askotarikoak izan daitezke: adibidez, herrigunean dauden eta gaur egun erabilerarik ez duten autobusen geralekuak balia daitezke, edo ibai-ertzeko pasealekuan gunek berriak jar daitezke esparruaren ezaugarriak kontuan hartuta (uholde-arriskua, etab.). Besteak beste, atsedenguneak irizpide hauen arabera diseinatuko dira:



- Kokapena zaintzea, faktore desatseginetatik babestuz eta elementu atseginekin harremanean jarritz.
- Argiztapena ondo zaintzea.
- Gutxieneko elementu hauekin hornitzea: aterpea, eserleku egokitua, eserleku iskiotikoa, iturria eta zakarrontzia. Ahal bada, landare-elementuekin osatzea ere gomendatzen da.
- Pertsona askorentzat atsedena jarduera soziala dela ulertzea, eta beraz topagune bezala ere diseinatzea.

Atsedenguneen ezaugarriak

Espazio publikoan atsedena hartzeko gune babestu eta ekipatuak jartzeak onura handiak ditu pertsona askoren autonomian.

Gaur egun erabiltzen ez diren markesinak, adibidez, aterpe-gune bat eskaini dezakete.


Atsedenguneak ekipatzeko eserleku ezberdinak, iturria, zakarrontzia... jar daitezke. Landaretza elementuekin osatzea gomendagarria da.



Erreserbatutako aparkaleku egokituak

Identifikazioa		
Kodea	EP.06	
Lerro estrategikoa	Espazio publiko irisgarria	
Jarduketa	Erreserbatutako aparkaleku egokituak	
Izaera	Teknikarien lanketa Proiektua eta obra	
Irisgarritasun	Fisikoa, sentSORIALA, kognitiboa	
Lehentasuna	Ertaina	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Ertaina	
Teknikoa	Altua	
Ekonomikoa	Altua	
Azalpena		
Deskribapena	Desgaitasuna duten pertsonentzako erreserbatutako aparkalekuak egokitzen jarraitu nahi da. Aurreikuspena da Udaleko baliabideak nahikoak izango direla jarduketa garatzeko eta ebaluatzeko. >> Ikus irudiak fitxaren amaieran.	
Helburuak	- Dauden erreserbatutako aparkalekuak egokitzea, irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzeko. - Irizpide homogeenOAK erabiltzea herri osoan (araudiak ezartzen dituen baldintzak ezartzea gomendatzen da). - Behar gehien dagoen guneeTan erreserbatutako aparkaleku berriak egokitzea. Gutxienez, eraikin publikoen edo erabilera publikoa dutenen inguruan.	
Eragileak		
Arduradunak	Obrak eta zerbitzuak	
Udalekoak	Udaltzaingoa, Gizarte zerbitzuak	
Udalaz kanpokoak		
Programazioa		Aurrekontua
2024	-	-
2025	Proiektuen garapena eta gauzatzea	10.000
2026	-	-
2027	Proiektuen garapena eta gauzatzea	10.000

Erreserbatutako aparkalekuen ezaugarriak



Zoladuren konponketa

Identifikazioa		
Kodea	EP.07	
Lerro estrategikoa	Espazio publiko irisgarria	
Jarduketa	Zoladuren konponketa	
Izaera	Teknikarien lanketa Mantentze-lanak	
Irisgarritasun	Fisikoa	
Lehentasuna	Ertaina	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Altua	
Teknikoa	Altua	
Ekonomikoa	Ertaina	
Azalpena		
Deskribapena	Espaloietako zoladuren egoerari behar duen garrantzia emango zaio, berariaz irisgarritasuna hobetzera bideratutako konponketa- eta mantentze-lanak egingo direla bermatuz. Aurreikuspena da Udaleko baliabideak nahikoak izango direla jarduketa garatzeko eta ebaluatzeko.	
Helburuak	- Herriguneko ibilbide nagusietan erorketak murriztea, bai eta horien aurreko beldurra ere. - Herriguneko ibilbide nagusien erosotasuna areagotzea. - Parte-hartze prozesuan jasotako eskaera nagusienei erantzutea.	
Eragileak		
Arduradunak	Obrak eta zerbitzuak	
Udalekoak	Udaltzaingoa	
Udalaz kanpokoak		
Programazioa		Aurrekontua
2024	Konponketa eta mantentze-lanetarako materiala	5.000
2025	Konponketa eta mantentze-lanetarako materiala	5.000
2026	Konponketa eta mantentze-lanetarako materiala	5.000
2027	Konponketa eta mantentze-lanetarako materiala	5.000

Merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduen egokitzapena

Identifikazioa		
Kodea	ER.01	
Lerro estrategikoa	Eraikin irisgarriak	
Jarduketa	Merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduen egokitzapena	
Izaera	Aholkularitza teknikoa Teknikarien lanketa Diru-laguntza	
Irisgarritasun	Fisikoa, sentSORIALA, kognitiboa	
Lehentasuna	Ertaina	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Altua	
Teknikoa	Altua	
Ekonomikoa	Altua	
Azalpena		
Deskribapena	Herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-establezimendu pribatuen irisgarritasun maila hobetzeko bi jarduketa egitea erabaki da: - Laguntza teknikoa kontratatzea. - Proiektuak garatzeko diru-laguntza lerro baten saiakera egitea. >> Ikus jarduketaren deskribapen xehatua fitxaren amaieran.	
Helburuak	- Merkataritza eta ostalaritza lokaletara sarbideak irisgarriak egitea, bai eta horien aurreko kanpoaldea ere. - Komunaren irisgarritasuna eta inklusibotasuna areagotzea. - Komunikazio eta informazio sistema ulertterazak eta homogeenoeak sustatzea. - Zerbitzu irisgarriak sustatzea.	
Eragileak		
Arduradunak	Tokiko garapena	
Udalekoak	Obrak eta zerbitzuak	
Udalaz kanpokoak	Merkataritza eta ostalaritza elkarteak. Herriko eraikuntza-gremioak.	
Programazioa		Aurrekontua
2024	Aholkularitza teknikoa	15.000
2025	Diru-laguntza	20.000
2026	Diru-laguntza	20.000
2027	-	-

Jarduketen deskribapen xehatua

Aholkularitza teknikoa

Aurreikuspena da Udalaren baliabideak eta gaitasunak ez direla nahikoak izango jarduketa garatzeko. Jarduketak barne hartuko dituen lan nagusienak:


- Lokalen irisgarritasunaren diagnostikoa egitea.
- Diagnostikoaren eta jarduketa-proposamenen homogeneousuna bermatze aldera, irizpideak lantzea eta Udalarekin adostea.
- Establezimendu bakoitzaren fitxa egitea. Bertan jasoko dira: diagnostikoa, hobekuntza-jarduketen oinarrizko deskribapena (aurrekontua barne) eta horiek gauzatzeko irizpideak.
- Formakuntza ematea establezimenduetako arduradun eta langileei.
- Formakuntza eskaintzea herriko eta inguruko eraikuntza-gremioei.

Teknikarien lanketa eta diru-laguntza

Aurreikuspena da Udaleko baliabideak nahikoak izango direla jarduketa garatzeko eta ebaluatzeko. Jarduketak barne hartuko dituen lan nagusienak:

- Inguruan abian jarritako antzeko esperientziak biltzea eta aztertzea.
- Udal mailako lantalde bat osatzea lanketa teknikoa egiteko: zirriborroak merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduen ordezkariekin kontrastatzeko asmoa dago.
- Diru-laguntza zehaztea. Batez ere proiektuen idazketak laguntzea aurreikusten da. Proiektu eta egokitzapen-lanek behar izaten duten denbora kontuan izanik, diru-laguntzaren aurrekontua bi urtetan (bi deialditan) banatzea erabaki da.

Egokitzapenen ezaugarriak



Etxebizitza eraikinetako atarien eta espazio komun en egokitzapena


Identifikazioa		
Kodea	ER.02	
Lerro estrategikoa	Eraikin irisgarriak	
Jarduketa	Etxebizitza eraikinetako atarien eta espazio komun en egokitzapena	
Izaera	Teknikarien lanketa Diru-laguntza	
Irisgarritasun	Fisikoa, sentsoriala, kognitiboa	
Lehentasuna	Ertaina	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Altua	
Teknikoa	Altua	
Ekonomikoa	Ertaina	
Azalpena		
Deskribapena	Etxebizitza eraikinetako irisgarritasun baldintzak hobetzeko diru-laguntza lerro bat ezartzea aurreikusten da: >> Ikus jarduketaren deskribapen xehatua fitxaren amaieran.	
Helburuak	Honako espazio eta elementuen irisgarritasuna hobetzea: - Eraikinaren sarbidea, bere kanpoaldea eta ataria. - Espazio komunetako joan-etorriak: bertikalak (igogailuak, eskailera) eta horizontalak (behe solairuan, solairuetan, garajea). - Espazio komunetako argiztapena, bai eta komunikazio- eta seinaleztapen-sistemak ere.	
Eragileak		
Arduradunak	Hirigintza	
Udalekoak		
Udalaz kanpokoak	Komunitateen administratzaileak. Herriko eraikuntza-gremioak.	
Programazioa		Aurrekontua
2024	-	-
2025	Diru-laguntza	40.000
2026	-	-
2027	Diru-laguntza	40.000

Jarduketen deskribapen xehatua

Aurreikuspena da Udaleko baliabideak nahikoak izango direla jarduketa garatzeko eta ebaluatzeko. Jarduketak barne hartuko dituen lan nagusienak:

- Garai batean ematen ziren diru-laguntzak aztertzea eta inguruan abian jarritako antzeko esperientziak biltzea eta aztertzea.
- Udal mailako lantalde bat osatzea lanketa teknikoa egiteko: zirriborroak herritarrekin kontrastatzeko asmoa dago.
- Diru-laguntza zehaztea. Puntuazioa osatzeko irizpideen artean daude, besteak beste: eraikinaren ezaugarriak eta egoera, eraikineko biztanle kopurua eta ezaugarriak (degaitasunari, adinari edo maila-sozioekonomikoari dagokionez, besteak beste).

Egokitzapenen ezaugarriak



Udal-eraikinetako sarbideetan seinaleztapena jartzea


Identifikazioa		
Kodea	ER.03	
Lerro estrategikoa	Eraikin irisgarriak	
Jarduketa	Udal-eraikinetako sarbideetan seinaleztapena jartzea	
Izaera	Aholkularitza teknikoa Diseinua eta ekoizpena	
Irisgarritasun	Sentsoriala, kognitiboa	
Lehentasuna	Ertaina	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Altua	
Teknikoa	Altua	
Ekonomikoa	Ertaina	
Azalpena		
Deskribapena	Udal-eraikinetako sarbideetan seinaleztapen irisgarria jartzeko asmoa hartu da, irizpide berberak eta irudi homogeneo bat erabiliz. >> Ikus jarduketaren deskribapen xehatua fitxaren amaieran.	
Helburuak	- Udal-eraikinen kanpoaldean informazio garrantzitsuena (irisgarritasunarekin lotutakoa barne) modu irisgarrian eta homogeneoan ematea.	
Eragileak		
Arduradunak	Komunikazioa	
Udalekoak	Obrak eta zerbitzuak	
Udalaz kanpokoak		
Programazioa		Aurrekontua
2024	-	-
2025	-	-
2026	-	-
2027	Proiektua garatzea eta gauzatzea	20.000

Jarduketen deskribapen xehatua

Aurreikuspena da Udalaren baliabideak eta gaitasunak ez direla nahikoak izango jarduketa garatzeko. Jarduketak barne hartuko dituen lan nagusienak:

- Eraikinetako zerbitzu eta espazioen inguruko informazioa jasotzea: ordutegia, harrera-zerbitzuaren irisgarritasun-maila, barruko joan-etorrien irisgarritasun maila, komun irisgarriak...
- Komunikazio-sistema irisgarri eta homogeen bat sortzea, irizpide berberak eta irudi homogeen bat erabiliz, Astigarragako udalak erabiltzen duenarekin lerrokatua.
- Errotuluak diseinatzea, ekoiztea eta ematea.
- Errotuluak jartzea (Udalaren baliabide propioekin egitea proposatzen den lanketa bakarra).

Sarbideen ezaugarriak



Udaletxeko atariaren egokitzapena

Identifikazioa		
Kodea	ER.04	
Lerro estrategikoa	Eraikin irisgarriak	
Jarduketa	Udaletxeko atariaren egokitzapena	
Izaera	Teknikarien lanketa Proiektua eta obra	
Irisgarritasun	Fisikoa, sentsoriala, kognitiboa	
Lehentasuna	Altua	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Altua	
Teknikoa	Ertaina	
Ekonomikoa	Ertaina	
Azalpena		
Deskribapena	Udaletxeko atariaren irisgarritasuna hobetzeko egitasmoa jarriko da abian. >> Ikus jarduketaren deskribapen xehatua fitxaren amaieran.	
Helburuak	Honako espazio eta elementuen irisgarritasuna hobetzea: - Arkupea. - Sarbideko atea. - Eskaileraren oina. - Beheko solairuko komuna.	
Eragileak		
Arduradunak	Obrak eta zerbitzuak	
Udalekoak		
Udalaz kanpokoak		
Programazioa		Aurrekontua
2024	Proiektua garatzea eta gauzatzea	40.000
2025	-	-
2026	-	-
2027	-	-

Jarduketen deskribapen xehatua

Aurreikuspena da Udaleko baliabideak nahikoak izango direla proiektua idazteko, obrak kontratatzeko eta lanen jarraipena egiteko. Jarduketak barne hartuko dituen lan nagusienak:

- Arkupean, sarrerako atearen aurrean, zoruaren irristakortasuna murriztea.
- Sarreran ate automatikoa eta gardena jartzea.
- Lehenengo eskailera-mailaren albo bietako "belarriak" moztea.
- Komunetako irisgarritasuna bermatzea.

Emakumeon Etxearen egokitzapena

Identifikazioa		
Kodea	ER.05	
Lerro estrategikoa	Eraikin irisgarriak	
Jarduketa	Emakumeon Etxearen egokitzapena	
Izaera	Teknikarien lanketa Proiektua eta obra	
Irisgarritasun	Fisiko, sentsoriala, kognitiboa	
Lehentasuna	Altua	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Altua	
Teknikoa	Altua	
Ekonomikoa	Altua	
Azalpena		
Deskribapena	Emakumeon Etxearen egoitzan hainbat egokitzapen egiteko asmoa dago, besteak beste irisgarritasuna hobetuko dutenak. Zuzenean horietara zuzendutako lanak jasotzen ditu fitxa honek. >> Ikus jarduketaren deskribapen xehatua taularen amaieran.	
Helburuak	Honako espazio eta elementuen irisgarritasuna hobetzea: - Sarbidea. - Komuna.	
Eragileak		
Arduradunak	Obrak eta zerbitzuak	
Udalekoak	Berdintasuna	
Udalaz kanpokoak	Emakumeon Etxeko arduraduna	
Programazioa		Aurrekontua
2024	Proiektua garatzea eta gauzatzea	40.000
2025	-	-
2026	-	-
2027	-	-

Jarduketan deskribapen xehatua

Fitxa honek Emakumeon Etxeko irisgarritasuna hobetzeko jarduketak jasotzen ditu, lanen aurrekontu osoa altuagoa izango delarik. Aurreikuspena da Udaleko baliabideak nahikoak izango direla proiektua idazteko, obrak kontratatzeke eta lanen jarraipena egiteko. Proiektuaren idazketan udal mailako lantalde bat osatzeko asmoa dago, zirriborroak Emakumeon Etxeko arduradunekin eta erabiltzaileekin kontrastatzea gomendatzen baita.

Kale Nagusiko komun publikoaren egokitzapena

Identifikazioa		
Kodea	ER.06	
Lerro estrategikoa	Eraikin irisgarriak	
Jarduketa	Kale Nagusiko komun publikoaren egokitzapena	
Izaera	Teknikarien lanketa Proiektua eta obra	
Irisgarritasun	Fisikoa, sentsoriala, kognitiboa	
Lehentasuna	Ertaina	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Altua	
Teknikoa	Altua	
Ekonomikoa	Altua	
Azalpena		
Deskribapena	Kale Nagusiko komun publikoa berritu nahi da, irisgarritasuna hobetuz. >> Ikus jarduketaren deskribapen xehatua taularen amaieran.	
Helburuak	- Sarbidearen eta komunen irisgarritasuna hobetzea. - Zainketa-lanak erraztea. - Segurtasuna eta honen inguruko pertzepzioa hobetzea.	
Eragileak		
Arduradunak	Obrak eta zerbitzuak	
Udalekoak	Berdintasuna	
Udalaz kanpokoak		
Programazioa		Aurrekontua
2024	-	-
2025	-	-
2026	Proiektua garatzea eta gauzatzea	20.000
2027	-	-

Jarduketen deskribapen xehatua

Kale Nagusiko komunak berritzeko asmoa dago, besteak beste irisgarritasuna hobetuz. Aurreikuspena da Udaleko baliabideak nahikoak izango direla proiektua idazteko, obrak kontratatzeke eta lanen jarraipena egiteko.

Herrigunean duen kokapen garrantzitsua dela eta, komun hau zainketa-lanetarako ere diseinatzeko aukera aztertuko da. Hala, gaur egun komunek hartzen duten espaziora mugatzeaz gain, jarduketan honetarako beste bi aukera landuko dira:

- Espaloi ondoko informazio-gunea hartzea (aurrekontuaren igoera ertaina).
- Komunaren eta eskaileraren arteko kanpo-espazioa hartzea (aurrekontuaren igoera nabarmena).

Auzo-taxi zerbitzua

Identifikazioa		
Kodea	UI.01	
Lerro estrategikoa	Udal irisgarria	
Jarduketa	Auzo-taxi zerbitzua	
Izaera	Proiektu pilotua Teknikarien lanketa Diru-laguntza	
Irisgarritasun	Fisikoa	
Lehentasuna	Altua	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Ertaina	
Teknikoa	Ertaina	
Ekonomikoa	Altua	
Azalpena		
Deskribapena	Landa-eremuko biztanleei zuzendutako auzo-taxi zerbitzuaren pilotua ezartzeko saiakera egingo da, duela zenbait urte egindako azterlanak berreskuratuz. Aurreikuspen nagusiena da diru-laguntza batean gauzatzea, arrakastatsua izatekotan urtero berrituko litzatekena. >> Ikus jarduketaren deskribapen xehatua fitxaren amaieran.	
Helburuak	- Landa-eremuko biztanleei garraio publikoko zerbitzu eraginkorra eta ekonomikoki irisgarria eskaintzea. - Desgaitasunen bat duten erabiltzaileen beharrak zerbitzuan txertatzea.	
Eragileak		
Arduradunak	Ingurumena	
Udalekoak	Gizarte zerbitzuak, Komunikazioa	
Udalaz kanpokoak	Taxi-zerbitzu emaileak	
Programazioa		Aurrekontua
2024	-	-
2025	Proiektua garatzea eta gauzatzea	15.000
2026	-	-
2027	-	-

Jarduketen deskribapen xehatua


Aurreikuspena da Udaleko baliabideak nahikoak izango direla jarduketa garatzeko eta ebaluatzeko. Jarduketak barne hartuko dituen lan nagusienak:

- Inguruan abian jarritako antzeko esperientziak biltzea eta aztertzea.
- Udal mailako lantalde bat osatzea lanketa teknikoak egiteko.
- Zerbitzua eskaini dezaketen hornitzaileekin hartu-emanak berreskuratzea.
- Mahai bat osatzea, aurreko lantaldeak, balizko hornitzaileek eta hainbat erabiltzaile potentzialek osatua.
- Lantaldean zerbitzuaren proiektua garatzea eta Mahaian adostea: aurreikuspen nagusiena da diru-laguntza batean gauzatzea, eta arrakastatsua izatekotan urtero berritzea.
- Zerbitzua abian jartzea eta ebaluatzea.

Erreferentziak

- Plentziako Auzotaxi zerbitzuaren eskuorria:
<https://www.plentzia.eus/eu-ES/Albisteak/Documents/20230925-auzotaxi.pdf>
- Oñatiko Auzo-Taxia zerbitzua:
<https://www.xn--oati-gga.eus/eu/udala/zerbitzuak/auzo-taxia>
- Oiartzungo Taxi-bus zerbitzua:
https://www.oiartzun.eus/eu/Garraioa/Taxi-bus_zerbitzua
- Bergarako auzo-taxi programarako dirulaguntzaren oinarriak:
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/euskera/gao/2024/01/29/e2400494.htm>

Auzo-taxi zerbitzua



Landa-eremuko biztanleei garraio publikoko zerbitzu eraginkorra eta ekonomikoki irisgarria eskaintzea, desgaitasunen bat duten erabiltzaileen beharrak kontuan hartuz.

Udal-informazio irisgarria

Identifikazioa		
Kodea	UI.02	
Lerro estrategikoa	Udal irisgarria	
Jarduketa	Udal-informazio irisgarria	
Izaera	Proiektu pilotua Aholkularitza teknikoa Teknikarien formakuntza eta lanketa	
Irisgarritasun	Sentsoriala, kognitiboa	
Lehentasuna	Ertaina	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Altua	
Teknikoa	Ertaina	
Ekonomikoa	Altua	
Azalpena		
Deskribapena	Udal-informazioaren irisgarritasuna hobetzeko lanketak egiteko asmoa dago, lehenengo urratsak proiektu piloto baten bitartez egitea aurreikusi delarik. >> Ikus jarduketaren deskribapen xehatua fitxaren amaieran.	
Helburuak	- Oinarrizko udal informazioa modu irisgarrian emateko pilotua garatzea eta ebaluatzea. - Herritarrei ematen zaien udal-informazioaren irisgarritasuna hobetzeaz gain, herritarrentzako eskuragarri jartzen den informazioarena ere hobetzea. - Bereziki desgaitasunak dituzten pertsonak hartuko badira ere kontuan, aniztasun egoera desberdinak kontuan izanik edozein herritarrek informazioa errazago eskuratzea eta ulertzea. - Udal-informazioaren alderdi guztiak irisgarriagoak egitea: edukiak, hizkuntzak, lengoaiak, euskarriak edo kanalak, etab.	
Eragileak		
Arduradunak	Komunikazioa	
Udalekoak	Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna, Informatika	
Udalaz kanpokoak		
Programazioa		Aurrekontua
2024	-	-
2025	-	-
2026	-	-
2027	Proiektua garatzea eta gauzatzea	10.000

Jarduketen deskribapen xehatua


Aurreikuspena da Udalaren baliabideak eta gaitasunak ez direla nahikoak izango jarduketa garatzeko eta ebaluatzeko. Jarduketak barne hartuko dituen lan nagusienak:

- Aholkularitza teknikoa kontratatzea.
- Inguruan abian jarritako antzeko esperientziak biltzea eta aztertzea.
- Udal mailako lantalde bat osatzea lanketa teknikoak egiteko.
- Formakuntza hartzea.
- Proiektu pilotua eta bere irismena zehaztea: jarduketa Gizarte Zerbitzuen diru-laguntza lerroen informazioaren inguruan egin daiteke, edo eta Emakumeon Etxearen informazioaren inguruan. Erabakia hartzeko kontuan hartuko dira, besteak beste: jarduketaren konplexutasuna, Udalaren baliabideak edo erabiltzaileen ezaugarriak (pilotuan eta ebaluaketan parte hartzeko, pilotuaren balizko akatsak onartzeko...).
- Pilotua garatzea, erabakiak erabiltzaileekin kontrastatuz, eta bereziki desgaitasunak dituzten herritarrekin.
- Jarduketa ebaluatzea, erabiltzaileekin kontrastatuz, eta bereziki desgaitasunak dituzten herritarrekin.

Erreferentziak

- Administrazio hizkera argia :
<https://www.ivap.euskadi.eus/administrazio-hizkera-argia/>
- Información para todos. Las reglas europeas para hacer información fácil de leer y comprender:
https://www.plenainclusion.org/wp-content/uploads/2021/03/informacion_todos.pdf

Udal-informazio irisgarria



Udal-arreta (HAZ) zerbitzu irisgarriak


Identifikazioa		
Kodea	UI.03	
Lerro estrategikoa	Udal irisgarria	
Jarduketa	Udal-arreta (HAZ) zerbitzu irisgarriak	
Izaera	Aholkularitza teknikoa Teknikarien formakuntza eta lanketa Langileen formakuntza	
Irisgarritasun	Fisikoa, sentsoriala, kognitiboa	
Lehentasuna	Altua	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Altua	
Teknikoa	Ertaina	
Ekonomikoa	Ertaina	
Azalpena		
Deskribapena	Udalak herritarrei ematen dien arreta esparru bakar batean bateratzeko egitasmoa abian jarri du, zerga-bilketa zerbitzua ere bertan txertatzea aurreikusten delarik. Jarduketa horrek "Udal irisgarria" esparruan izan dezakeen eragina nabarmena dela iritzita, irisgarritasun unibertsalaren irizpideak jarraituz garatzea erabaki da. >> Ikus jarduketaren deskribapen xehatua fitxaren amaieran.	
Helburuak	- Udal-arreta presentziala zein telematikoa irisgarriagoa egitea. - Desgaitasun eta aniztasun egoera desberdinak kontuan harturik, udal-arretaren alderdi guztiak irisgarriagoak egitea: edukiak, hizkuntzak, lengoaiak, euskarriak edo kanalak, etab.	
Eragileak		
Arduradunak	Idazkaritza	
Udalekoak	Komunikazioa, Informatika, Arretako langileak.	
Udalaz kanpokoak		
Programazioa		Aurrekontua
2024	-	-
2025	Espazioaren irisgarritasuna bermatzeko lanak garatzea eta gauzatzea	15.000
2026	Zerbitzuaren irisgarritasuna hobetzeko lanak garatzea eta gauzatzea	15.000
2027	-	-

Jarduketen deskribapen xehatua

Aurreikuspena da Udalaren baliabideak eta gaitasunak ez direla nahikoak izango jarduketa garatzeko eta ebaluatzeko. Jarduketak barne hartuko dituen lan nagusienak:

- Aholkularitza teknikoa kontratatzea.
- Inguruan abian jarritako antzeko esperientziak biltzea eta aztertzea.
- Udal mailako lantalde bat osatzea lanketa teknikoak egiteko. Udaleko arduradunetz gain (esparru tekniko zein politikokoak), herritarrei arreta ematen dieten langileak hasiera-hasieratik lantaldeko partaide izatea da asmoa.
- Formakuntza hartze, bi fasetan: lehenengoa, jarduketaren diseinura bideratua, eta bigarrena, zerbitzua emango duten langileei zuzendua.
- Proiektu pilotua eta bere irismena zehaztea: lanketa esparru fisikoan abiatzeko asmoa dago, esparru digitalean aurrerapauso garrantzitsuak ematea aurreikusten delarik.
- Jarduketa garatzea, erabakiak erabiltzaileekin kontrastatuz, eta bereziki desgaitasunak dituzten herritarrekin.
- Lehen urteetan jarduketa irisgarritasunaren ikuspegitik berariaz ebaluatzea.

Udal arreta zerbitzua



Aniztasun funtzionala duten haur eta nerabeentzako aisialdi gunea

Identifikazioa		
Kodea	UI.04	
Lerro estrategikoa	Udal irisgarria	
Jarduketa	Aniztasun funtzionala duten haur eta nerabeentzako aisialdi gunea	
Izaera	Proiektu pilotua Teknikarien lanketa	
Irisgarritasun	Fisikoa, sentSORIALA, kognitiboa	
Lehentasuna	Altua	
Bideragarritasuna		
Araudizkoa	Ertaina	
Teknikoa	Ertaina	
Ekonomikoa	Altua	
Azalpena		
Deskribapena	Desgaitasun desberdinak dituzten haur eta nerabeen garapen eta aisialdirako gune baten proiektu pilotua jartzeko asmoa hartu da, hezitzaile adituek gidatua. Bide batez guraso eta zaintzaileentzako topagune eta arnasmune ere bilakatzea aurreikusten dena. >> Ikus jarduketaren deskribapen xehatua fitxaren amaieran.	
Helburuak	- Desgaitasun desberdinak dituzten haur eta nerabeen garapen eta aisialdirako gune eta une bat sortzea herrian bertan. - Haur eta nerabe horien guraso eta zaintzaileai arnasmune partekatu bat eskaintzea, bide batez elkar ezagutzeko, sozializatzeko eta elkarrekintzarako aukera bat eskainiz.	
Eragileak		
Arduradunak	Gizarte zerbitzuak	
Udalekoak	Kultura, Kirola	
Udalaz kanpokoak		
Programazioa		Aurrekontua
2024	Proiektua garatzea eta gauzatzea	10.000
2025	Proiektua garatzea eta gauzatzea	10.000
2026	-	-
2027	-	-

Jarduketen deskribapen xehatua

Astigarragan bizi diren eta desgaitasunak dituzten haur eta nerabeak ez daude ikastetxe berean eskolaratuta, eta eskolaz kanpoko ekintzetan ere familia bakoitzak gune eta zerbitzu desberdinetara jotzen du. Bestalde, herrian bertan aisialdirako eta garapenerako dauden ohiturek, espazioek eta jarduerak ez dituzte asetzen haur eta nerabe horien beharrak, eta nekez egiten dute bat zaintzaile askoren baldintza eta gogoekin ere. Arrazoi hauek tarteko, zaintzaileek adierazi dute herrian antzeko egoeran dauden beste familiak ez dituztela ia ezagutu ere egiten, eta sozializatzeko aukerak falta dituztela, herrian bertan isolatuta daudela sentitzeraino. Egoera honen aurrean, proiektu pilotu bat egiteko asmoa hartu du Udalak.

Aurreikuspena da Udaleko baliabideak nahikoak izango direla jarduketa garatzeko eta ebaluatzeko. Jarduketak barne hartuko dituen lan nagusienak:

- Mahai bat osatzea, Udaleko arduradunek eta haur zein nerabeen hainbat guraso edo zaintzailek osatua.
- Inguruan abian jarritako antzeko esperientziak biltzea eta aztertzea.
- Jarduerak zehaztea: psikomotrizitate saioak proposatu diren arren, erabiltzaileen beharretara, gaitasunetara eta nahietara egokitutako eskaintza sortzea iradokitzen da. Aipatu da bi hezitzailek zuzendutako saioak egitea, hamabostean behin, larunbat goizetan adibidez.
- Lekua zehaztea: haurren eta nerabeen jarduerarako egokia izateaz gain, kontuan hartuko da gune horretatik hurbil gurasoek eta zaintzaileek topagune eta arnasmune egoki baten aukera izatea.

Aisialdirako gunea eta unea

